

Haize ekaitza Euskal Herrian

Haizea baretu zen arren, arazo handiak jazo ziren atzo, batez ere eguerdira bitartean

Zenbait unetan hurakan baten moduan jo du haizeak, SOS Deiak-eko adituek azaldu zutenez

Erredakzioa / Donostia

Herrizaingo Sailak haize-arengatik zabaldutako alarma egoera bertan behera utzi zuen atzo arratsaldean. Egoera asko baretu zen Euskal Herrian orduet aurrera egin ahala. Alabaina goiz partean arazo handiak izan ziren haize bortitzaren ondorioz. Esaterako, ilunabarrean milaka eta milaka euskal herritar argindarrik gabe ziren.

HAIZEAK 120 kilometro orduko abiaduraz jo zuen hamar minutuz batere geratu gabe Euskal Herriko zenbait lekutan herenegun –Gipuzkoako Jaizkibel mendian esaterako–, eta hori teknikoki hurakan batek egiten ohi duela azaldu zuten SOS Deiak-eko adituek atzo. Bilbon, Jose Ramon Zamanillo zerbitzu horretako zuzendariak azaldu zuenez, haize bortitzek euskal lurraldea astindu zuten bitartean, larrialdietarako artatze zerbitzuak lanez «gainezka» ibili ziren, batez ere kostaldean.

Bizkaian jazo zen egoerarik txarrena. Hiru lagun hil, eta beste bat larri zauritu ziren haizeak eragindako istripuen ondorioz. Bizkaiko Oiz mendian, esate baterako, haizeak 160 kilometro orduko abiaduraz jo zuen zenbait unetan herenegun. Bizkaiko suhiltzaileek 150 irteera baino gehiago egin zituzten, haizeak botatako gauzak jasotzeko batez ere: zuhaitzak, publizitate panelak, semaforoak, etxe paretak... Euskal Herriko gainerako lurraldeetan ere ez zitzairen lanik falta izan suhiltzaileei atzo goizera arte. Ipar Euskal Herrian 150 aldiz baino gehiago atera behar izan zuten herritarren deiei erantzuteko. Gipuzkoan, 80 irteera baino gehiago egin zituzten; eta Gasteizen baka-rrik, 154 irtenaldi egin zituzten.

Garraioak normaltasunera itzuli ziren atzo, baina errepide zenbait itxita izan ziren atzo goizean Bizkaian. Hondarribia, Sondika eta Noaingo aireportuetan ere hegaldi batzuk bertan behera utzi behar izan zituzten goizean.



EDURNE KOCH

Kaosa kostaldean. Itsasoaren egoera latza izan da haize ekaitzaren ondorioz. Baionako portua erabat itxita izan zen atzo egun osoz. Itsas baxurako ontziak portuan geratu ziren atzo. Herenegun, ontzi batzuk hondartzaraino eraman zituzten olatu bortitzek, Donostiako Kontxa hondartzan atzo goizean irudian hartutakoa kasu.



LUIS TEJIDO-EFE

Zuhaitz eroriak non-nahi. Getxoko Areatza auzoan atzo hartutako irudiak ongi islatzen du herri askotan izandako egoera: auto eta etxebizitzaren gainera erorritako zuhaitzek kalteak sortu zituzten etxeetan eta eragozpenak garraiobideetan.



MONIKA DEL VALLE

Teilatuak, sabaia eta fatxadak hondatuta. Argazkian ageri da Gurutzetako ospitalean, Barakaldon, haizeak fatxadan eragindako kalteak. Eraikuntzek txikizio handiak pairatu zituzten Euskal Herri osoan. Miarritzen, esaterako, bi etxeren teilatuak errotik eraman zituen haizeak.